

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Andres Alberdi Gorostiaga

*Getaria,
Gipuzkoa
(1950)*

Aurkibidea



Biografia



Getarian jaio zen 1950ean. Gurasoak ere biak getariarrak zituen. Herrian bertan ikasi zuen umetan, baina 11 urterekin Saturrarango seminaria joan zen eta handik Donostiakora ondoren. Seminarioan euskaraz alfabetatzeko aukera izan zuen Juan Mari Lekuonari esker. Filosofia ikasketak amaitzera Erromara joan zen eta, han zegoela, Elgoibarko ikastolara lanera joateko proposamena egin zioten. 1973an hasi zen Elgoibarko ikastolan lanean. Bi urteren buruan soldadu joan beharra izan zuen. Itzultzean, 1976an, ikastolako zuzendari izendatu zuten. Euskaraz alfabetatzeko gau-eskolak ere eman zituen sasoi horretan. 1980an Elgoibarko institutura pasa zen eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Mintegi bat sortu zuten eta DBHrako eta Batxilergorako Euskara eta Literatura ikasgaiko hainbat material sortu zuten 1985etik aurrera. 1991-92 ikasturtetik 2011ra bitartean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko EIMAn ere egin zuen lan. 2018an euskaltzain urgazle izendatu zuten.

Zintak

GET-035

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2022-05-24
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Getaria, herri euskalduna

- **Erref:** GET-035/002
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:00:29. **Bukatu:** 00:03:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Familia eta arbasoak, getariarrak. Aita arrantzalea zen eta amak etxean arrain gazituak prestatzen zituen eta etxeko lanez arduratzen zen. Euskarazko lehenengo liburua dotrina izan zen. Getarian jende guztiak euskaraz hitz egiten zuen, baita kanpotik herrira lanera joandakoak ere.

2. Bi eskola zeuden Getarian eta biak euskaldunak

- **Erref:** GET-035/003
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:03:21. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Lagunen artean euskaraz egiten zuten baina maisuarekin beti gaztelaniaz. Eskolan ez zuten "Cara al Sol" kantatu behar izaten. Bi eskola zeuden Getarian, bata plazan eta bestea moilan.

3. Saturrarango seminarioan euskaraz ikasi zuen I

- **Erref:** GET-035/004
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Hamaika urterekin Saturraraneko seminariora ikastera joan zen. Bertan euskara ikasteko aukera izan zuen Juan Mari Lekuonarekin.</p>

4. Euskalki ezberdinak seminarioan

- **Erref:** GET-035/005
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Seminarioan, hiriburutik eta herri txikietatik joandako ikasleak zeuden. Euskaraz hitz egiten zuten haien artean gehienbat. Aita Zabalen euskarazko liburuak. Gipuzkera. Donostiako seminarioan ere Juan Mari Lekuona izan zuen euskarazko irakasle.

5. Erromatik Elgoibarko ikastolara

- **Erref:** GET-035/006
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Seminarioa utzi eta Filosofiako lizentziatura bukatzera joan zen Erromara. Ikasketak bukatzeaz zegoela, Antton Aranburuk deitu zion Elgoibarko ikastolatik, bertan lan egiteko eskatuz. Andresekin batera, Iñazio Garmendia eta Emilio Imaz hasi ziren ikastolan lanean. Ikastolako lehenengo irakasle lizentziatuak izan ziren, 6. mailatik aurrerako promozioei klaseak emateko.

6. Elgoibarko ikastola: testuliburuak

- **Erref:** GET-035/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Elgoibarko ikastolan lanean hasi zenean. 6. mailako tutoretza eman zioten, 26 ikasleekin. Parrokiako lokaletan zeuden gelak. Alfonso Guill´;, Nekane Iturbe eta hirurak ziren irakasleak. Testulibururen bat bazegoen euskaraz baina gehienbat gaztelaniatik itzultzen zituzten fitxak eta ariketak. Ikastolako hasierako familia eta haurrak euskaldunak ziren ia denak.</p>

7. Getariatik Elgoibarrera: euskararen egoera eta erosteko ahalmena

- **Erref:** GET-035/008
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:17:27. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Elgoibarrera bizitzera joan zenean, herri guztiz erdalduna zela sentitu zuen.

Elgoibarren frankismoaren ondoriok euskaraz ikasi eta transmititu ez zitzairen belaunaldiari buruz hitz egiten du. Elgoibarren ere, erosteko ahalmena Getarian baino askoz handiagoa zela konturatu zen.

8. Elgoibarko euskalkira moldatzen

- **Erref:** GET-035/009
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:21:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hasieran, Elgoibarko euskalkira moldatu behar izan zen. Ikastolako lehenengo astean ikasle batekin gertatutakoa kontatzen du.

9. Galdutako euskal hiztunen belaunaldia

- **Erref:** GET-035/010
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:21:21. **Bukatu:** 00:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Elgoibarko kaleko giroa erdalduna bazen ere, auzoetakoak guztiz euskaldunak ziren. Kaleko pertsona nagusiak euskaldunak zirela badaki, baina bere adinekoak ez. Hala ere, bera euskal giroan ibiltzen zen, ikastolako jendearekin zuelako harremana.

10. Elgoibarko ikastola: kooperatiba

- **Erref:** GET-035/012
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:27:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarko ikastola kooperatiba nola bilakatu zen. Ikastola Elgoibarko Izarra elkartearen barruan zegoen baina hartzen ari zen dimentsioa hartuta, 1973an kooperatiba bat sortzea erabaki zen.

11. Elgoibarko ikastolaren eraikin berriaren bultzatzaile nagusiak

- **Erref:** GET-035/013
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolaren eraikin berria sortzen Jesus Bilbao, Juanjo Araolaza eta Felix "Parapan" ibili ziren, beste batzuen artean.

12. Gau eskolak Elgoibarren

- **Erref:** GET-035/014
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:32:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ikastolako irakasleak ibili ziren gau eskolan ematen Elgoibarren. Talde asko zeuden. Kokalekua. Ikasleen perfila. Gazte askok nahi zuen euskaraz ikasi eta alfabetatu, gizartea oso politizatua eta idealizatua zegoelako.

13. Elgoibarko ikastolaren eraikina

- **Erref:** GET-035/016
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>1976an zabaldu zen Elgoibarko ikastolaren eraikina. Andres ikastolako zuzendari pedagogikoa izan zen lau urtez. Eraikuntza oso ondo pentsatuta zegoen bai barrura begira baita kanpora begira ere. Ikasle kopurua asko hazi zen eraikin berriaren hasierako urteetan.</p>

14. Ikastolako metodologiak

- **Erref:** GET-035/017
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:40:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Irakaskuntzako metodologikoa ezberdina zen ikastolan. Ekintzak, dinamikak...

15. Aubixako aterpetxea

- **Erref:** GET-035/018
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:40:12. **Bukatu:** 00:43:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Aubixako aterpetxea 1973an hasi zen ikasleei euskal giroan bizitzeko aukera ematen. Giro oso polita zuten bertan. Hamabost eguneko udalekuak ziren.</p>

16. Bailarako institutuak euskalduntzen

- **Erref:** GET-035/019
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:43:13. **Bukatu:** 00:46:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Institutu euskaldunak sortzeko beharra zegoen bailara osoan baina ez zegoen dirurik bat zerotik eraiki eta antolatzeko. Lizentziatuak ziren irakasle batzuk, institutuetan lanean hasi eta bertako karguak hartzen hasi ziren, horrelako poliki-poliki euskalduntze-prozesua emanez.

17. Euskara irakasgai bezala

- **Erref:** GET-035/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:46:29. **Bukatu:** 00:48:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Andres Elgoibarko institutuan lanean hasi zenean, nahiz eta euskarazko irakasle ofizialik ez egon eta araudian sartuta ez egon, beste irakasgaietako irakasleek (Pello Arrieta, Enrike Larrañaga, Joxe Ramon Kortabitarte, Pello Gaztelurrutia, Gaztañaga...) euskara ere irakasten zuten. Geroago hasi ziren plazak ateratzen.</p>

18. Elgoibarkoa institutu "pilotua"; hizkuntza-ereduak

- **Erref:** GET-035/021
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:48:21. **Bukatu:** 00:50:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>1979an, Eusko Kontseilu Nagusiaren baitan hainbat eskola eta institutu euskalduntzeko urratsak eman ziren. Mari Karmen Altzueta eta Xabier Mauleon ibili ziren zeregin horretan. Elgoibar, Hondarribia eta Hernaniko zentroak, institutu "pilotu" izendatu ziren eta ordutik irakasle berri guztiek

gaztelaniaz gain euskara ere jakin behar zuten. Institutuan hasieran hiru ereduak zeuden: A, B eta D.</p>

Transkripzioa

Hor Elgoibarko institutuak, gaiñera, suertia izan zuen. Garaitsu horretan, 79an, sortu zan hemen artian ez Eusko Jaurlaritza baizik eta Consejo General eztakit-zer -holako izen bat zuan- eta horrekin batera hasi zan “euskal” ikuspuntutik eskolak eta institutuak montatzen. Eta hemen bi pertsona ibili ziran nahiko fuerte, apustua egin zuten Donostia aldian honeako, eta izan ziran Mari Karmen Altzueta eta Xabier Mauleon. Eta habek ez dakit berez ze entidade administratibo -ze izen- jarri zioten, baiña Gipuzkoan Elgoibarko, Hondarribiko eta Hernaniko institutuak nolabait ere “instituto piloto” modura izendatu zituzten. Eta horren bidez aukera zegoen ez bakarrikan euskera emateko, baizik eta irakasle berriak - ze zeudenak hantxen zeuden, plaza euren zutelako-irakasle berri hoiek ekartzerakoan, danak euskaldunak izatea. Nolabait ere eskola edo instituto pilotuak zirenez, ba, irakasle guztiak bi hizkuntza jakin behar zuten, irakasle berri guztiek bi hizkuntza jakin behar zuen. Eta hor ya hasi zan gupilla... Eta harrazkero ya Elgoibarko institutuan ez det uste irakasle erdaldunik sartuko zanik. Beharbada asignatura batean edo bestean, baiña ez, hori jarri zan baldintza modura. Eta urte gutxitan Elgoibarko institutuak ikastola baten martxa eta modua hartu zuan. Klaro, ikastolan danak zian D ereduak, institutuan hasieran hiru ereduak zeuden: A, B eta D. D ereduak gehienbat ziran ikatolako ikasleak, Mendaroko eskolako ikasleak -berez euskaldunak zirelako-; gero zegoen B, gehienak ziran familia euskaldunetakoak, baiña edo ikasiyak Pilarren edo Muguruzan eta abar; eta besteak ziran erabat erdaldunak, ba, aukerarik izan ez zutelako ta hoiek A. Eta gure lana izaten zan -hola globalki esanda- D ereduak aber ateratzen zuten EGA institutualdia bukatu ondoren eta besteak minimoki ea euskeraz hitz egiteko aña ekartzen genituen aurrera.

19. Euskarazko testuliburuak sortzen

- **Erref:** GET-035/022
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:50:51. **Bukatu:** 00:53:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Institutuko euskara mintegia, testugintzan lanean hasi zen eta Euskara eta Literatura irakasteko testuliburuak argitaratu zituzten 1986an Elkarrekin batera. Gainerako irakasgaien testuliburuak euskalduntzea beranduago heldu zen.

20. Ikastola eta elizaren laguntza

- **Erref:** GET-035/025
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:58:03. **Bukatu:** 01:00:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Ikastolan lanean hasi zenean, abadearen etxeko multikopistarekin sortzen zituen fitxak eta ariketak ikasleentzat. Don Carlos zen orduko abadea eta asko lagundu zuen ikastolaren egunerokotasunean eta batez ere sorrera ofizialean.

21. Euskararen zabalkundearen motorra falta da

- **Erref:** GET-035/028
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:04:25. **Bukatu:** 01:07:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- 101L » Eleaniztasuna » Euskarari buruzko iritziak

Laburpena:

Elgoibarren, euskara orain dela 50 urte baino egoera hobeagoan dagoen arren (udaletxean, banketxean...), euskararen erabilera ez dago normalizatua. Garai bateko Eusko Jaurlaritza eta alderdi politikoak, ideologia euskaldun baten alde egiten zuten eta euskararen zabalkunde lan handia egin zen. Gaur egun, ez.

22. Gaur egun euskarak ez du eremu zehatzik

- **Erref:** GET-035/029
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:07:39. **Bukatu:** 01:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Eleaniztasuna » Euskarari buruzko iritziak

Laburpena:

Garai batean euskarak bere eremuak zituen (baserria, landa eremua...) eta gaztelaniak eremu horietan ez zuen lekurik. Gaur egun, euskarak ez du lekurik (telebistan, interneten, mugikorrean...).

23. Elgoibarko eta Getariako hitanoa

- **Erref:** GET-035/030
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:09:28. **Bukatu:** 01:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Elgoibarrera bizitzera joan zenean, hika pertsona helduek bakarrik egiten zuten. Emakumeko heldu batzuei lehenengoz "ikusiko jonau" entzun zienekoa.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com